


berrikuntza GARA.

1. alea 2017

INNOBASQUEKO ERAKUNDE BAZKIDEEN ALDIZKARIA





"Batu egin behar dugu eta epe luzerako ikuspegi globalarekin egin behar dugu."

Iñigo Urkullu Rentería
Lehendakaria

"Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana hedatzeko gaitzen bagara behar adinako indar eta irismenarekin, ezerk ez liguke galarazi behar berrikuntza arloko Europako erreferenteetako bat izatea."

Alberto García Erauzkin
Innobasqueko presidentea

Berrikuntzarik gabe ez dago etorkizunik

Eta baldin badago, kaxkara izango da. Nekez aurkituko duzu gaur egun esandako hori zalantzan jarriko duen inor. Berrikuntza Garako pertsona edo erakunde batek berak ere ez du egingo. Denok ekarpena egiten dugu, batu egiten dugu, berritu, eta denok berrikuntza gara.

Amets bat dugu: Euskadi eraldatu eta alor guztietan gizarte berritzaile bihurtu eta lankidetzan egin hori, izan ere, pertsona guztiak gara berritzeko gai. Berrikuntza Gara, eta hala adierazten du.

Berrikuntza Gara da Innobasqueko erakunde bazkideen aldizkari berria, eta gure sarearen gaitasun berritzaileei balioa ematen die. Potentzial hori erakutsi nahi dugu; ezagutu dadila, aitortu dadila eta ospatu dadila.

Askotan Zarauzko lantegi batean pizten da argia, beste batzuetan El Regatoko garaje batean edo Arabako Lautadako zentro teknologikoan sortzen da ideia. Gauza seguru bat dago: ez dago Silicon Valleyra joan beharrik I+G+b arloko laborategi sofistikuak aurkitzeko, material aurreratu berrien aukerak aztertzeko edo gure erkidegoan egiazko eragina sortuko duten ideiak aurrera ateratzeko.

Euskadin berritu egiten da, ahaleginaren kulturatik, umiltasunez eta geure idiosinkrasiarekin; honaino ekarri gaituen lehengaiarekin.

Gure erantzukizuna da lorpen hauek gizarte osora iristea eta ezagutzea, gehiago eta hobeto berritzeko inspirazio izan daitezen. Dibulgazio hori gogoan dugula Innobasqueko erakunde bazkideak ikusgarri bihurtzen ditugu, baita beren gaitasunak eta lortutako aurrerapenak ere.

Berrikuntza Gara, Innobasqueren 10. Batzar Orokorrean aurkeztu da eta hiru zati ditu: eraldatuz, elkarrekin eta Innobasque gara.

Lehenengoa prospektiba bat da, berrikuntzarekin zerikusia duten joerak eta gaiak aztertu dira eta Euskaditik nola heltzen zaien erakutsi da. Lehenengo zenbaki honetan elkarlaneko berrikuntza eta ekonomia zirkularra zer diren azaldu dugu, euskal berrikuntzaren arloan garrantzi handia duen bat elkarriketatu dugu eta Made in Euskadi berrikuntzaren 8 adibide ekarri ditugu. Elkarrekin zatian Innobasquek bere sarearen bidez sustatutako jarduerak aztertu dira. Amaitzeko, Innobasque Gara atalean Innobasque erkidegoaren potentziala ageri da izen propioekin eta nor garen erakutsi dugu. Erantzuna, bi hitzetan: Berrikuntza Gara.




aurkibidea.



2 | Ongi etorri



6 | Eraldatuz



8 | Sakon. Elkarlaneko berrikuntza



10 | Sakon. Elkarlaneko berrikuntza



16 | Emiliano López Atxurrari elkarrizketa



12 | Sakon. Ekonomia zirkularra



18 | Proiektu berritzaileak



14 | Sakon. Ekonomia zirkularra



22 | Elkarrekin



24 | ZTBP 2020rekin bat eginez



20 | Proiektu berritzaileak



26 | ZTBP 2020rekin bat eginez



28 | Berrikuntzaren euskal sistema ebaluatuz



30 | Nazioartekotzea sustatuz



32 | Berritzeko elkarlanean



34 | Kultura berritzailea sustatuz



36 | Gizarteko erronkak sartuz



38 | InnobasqueGARA



40 | Erkidego berritzailea sortuz



42 | 1.000 baino gehiago gara



44 | Erakunde bazkide berriak



46 | Erakunde bazkide berriak



atalak.

eraldatuz.

Prospektiba honek berrikuntzarekin zerikusia duten joerak eta intereseko gaiak aztertzen ditu, eta Euskaditik nola heltzen ari garen ere bai.

elkarrekin.

Innobasquek bere sarearen bidez sustatutako ekimenen azterketa labur eta bisuala.

innobasqueGARA.

Innobasque erkidegoaren potentziala erakusten du, izen propioekin.



eraldatuz.

Ametsik gabeko bizitza, izarririk gabeko gaua

ERALDAKETA baten historia.

2016

2030

2016

Euskadi, berrikuntzaren gunea.
Europako Batzordeak sailkapen hori eman dio Euskadiri, berrikuntza moderatuko inguru batean dagoen berrikuntza handiko eskualdea delako.



2020

Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.

Euskadik pertsona guztien ongizatea hobetzeko plan bat du, enplegua sortzeko eta hazkunde ekonomikoa eta giza hazkunde jasangarria lortzeko.



2030

Ikuspegia.

Amets bat dugu: 2030ean Euskadi berrikuntzako europar talde nagusian egotea.



Berrikuntzak elkarlana esan nahi du

Ezagutzaren mugikortasuna hazten ari den eta elkarren artean lotura handiagoa dagoen munduan, elkarlaneko berrikuntza geratzeko etorri da.

Atzera begiratuz gero ikusiko dugu alde handia dagoela duela hamarkada bat elkarlana eta berrikuntza lotzeko zegoen moduarekin. Gaur egun bi kontzeptuak ez daude bananduta, baizik eta gero eta errealitate integratuagoa da. Hala aitortu du Dyan Finkhousen-ek, General Electric-eko Open Innovation & Advanced Manufacturing zuzendariak, duela gutxi: "iaz 5 proiektu berritan 4.800 lagun baino gehiagok hartu zuten parte eta produktuen 7.400 kontzeptu berri baino gehiago diseinatu zituzten. Horietako bat bera ere ez zen General Electric-eko langilea."

Hiru faktore giltzarri izan dira lagungarriak igarotze honetan:

- Hasteko, berrikuntza irekia. Batez ere azken urteetako berrikuntza irekiko ereduaren garapen praktikoari esker lortutako ezagutza. Hasi metodologia eta trebeziekin eta adituen belaunaldi berri batera arte, etengabe eboluzionatzen duen ezagutza garatzen dute eta biltzarretan, nazioarteko sarietan¹, argitalpenetan, ikerketetan²... barreiatzen da.
- Bestalde, baliabide gehiago dago eta irisgarriagoak dira. Batetik oso garrantzitsua da teknologia digitalen kostean egon den beherakada, horri esker errazago erabili baitaitezke (cloud, 3D, gizarte sareetan sustatu...).

Era berean, azpiegituren gero eta eskaintza handiagoa dago, hala nola, azeleragailuak, inkubagailuak edo crowdsourcing plataformak. Gainera, kapital gehiago dago eskura (Venture Capital, crowdfunding, lending... bidez), aukera hobeen irrikan.

- Amaitzeko, berrikuntza sustatzen duten arauzko markoak eta programak hobetu dira. Gobernuak sarbide errazagoa eta eraginkorragoa eskaini nahi dute finantzazio publikora, inbertsiorako zerga-pizgarrien mekanismo berriak garatu, elkarlan arloko ezagutza babesten duten berariazko legediak sustatu, sareko lana bultzatu eta talentuaren garapena babestu.

Ezagutzaren mugikortasuna hazten ari den eta elkarren artean lotura handiagoa dagoen munduan, elkarlaneko berrikuntza geratzeko etorri da.

© @albertobokos

- "Collaborative Innovation Awards," antolatzailea Suffolk University (Boston).
- Euskal egoerari dagokionez, aipatzekoa da doktore-tesi bat; "innovación colaborativa/elkarlaneko berrikuntza", 2016an Mondragon Unibertsitatean aurkeztua Tomás Iriondok, Gaia clusterreko zuzendari orokorrak.

Zer da elkarlana?

Elkarlana ohiko hizkuntzan erabiltzen den hitz bat da eta esanahi zenbait izan du historian zehar, hizkuntza desberdinetan edo jarduera mota desberdinetan³. Beraz, "elkarlana" esatean litekeena da gauza bera ez interpretatzea. Funtsean elkarlanean aritzea da elkarrekin lana egitea. Hori dela eta, hauek ezarri beharko dira:

- **Baldintzak:** baterako espektatibak eta beharrak identifikatu, taldeko lana eta aldeek ekarpenak kontzertatu, baita itzulerak eta arriskuak ere;
- **Partaideak inplikatzeko konfigurazioa lana batera egin dezaten** (konfiantza eraikiz, elkarren ezagutzaz eta besteen ekarpenen balioaz kontzientzia hartuz eta jarduerak eta rolak ordenatuz), elkarrekin adostutako xede batera bideratuta eta askotan etorkizuneko erabaki eta irtenbideetarako oinarria sortuz.

Honek prestakuntza esanguratsua eskatzen du, hasi alor teknologikotik eta trebezia pertsonaletara arte; horrela baino ez baita egia bihurtuko hasierako asmoa eta ez dira emaitza puntual batean geratuko.

Beharrezkoa da elkarlan-prozesu batean inguruabarrak sortzea.

Elkarlanak elkarrekintza naturala eman dezake, eta hala gertatzen da zeregin jakin bat lantzeko elkartzen direnean pertsonak. Praktikan, elkarlana ez da saihestezina. Jarrera, gaitasun edo konfigurazio txarrekin taldean egin beharreko lana elkarrekintza aldebakarra izan daiteke eta pertsona batek gaina hartu dezake, bere ikuspuntua ezarri edo aldeak neutralizatu egin daitezke. Partaideen trebezien, jarreraren eta kokapenen mende dago, beraz, elkarlana. Beharrezkoa da elkarlana egoteko aukera gehiago eskainiko dituen inguruabarrak sortzea eta elkarlan hori denboran iraunaraziko dutenak sortzea ere bai. Hori dela eta, elkarlanerako forma batzuk besteak baino hobekak dira eta kasu bakoitzean beharretara egokitutako konfigurazioa behar da. Baina gogoan izan elkarlana ez dela beti beharrezkoa.

Nola aritu elkarlanean?

Aldeetako inork ere lehen ez zituen produktu/zerbitzu berriak sortzeko ezagutzak eta gaitasunak konbinatuz, elkarlanean ari direnek erantsitako balioa oinarri hartuta. Elkarlanean aritzea ez da gaitheza.

Balio handiagoa zerikusia duten alde guztientzat

Askotan eskuzabaltasunean oinarritutako jardueratzat hartu da elkarlana (filantropia), hirugarren baten beharrak artatzen dituen zerbitzu dela izan da, elkarlanean ari direnak hirugarren horrekin eskuzabal direlako eta itxuraz behintzat ezer jasotzea espero gabe aritzen dira. Elkarlaneko lankidetzan zerikusia duten alde guztientzat balioa maximizatu nahi dugu berritzeko modu baten bidez, elkarlanaren bidez. Elkarlaneko beste alor batzuekin alderatuz gero, berrikuntzak duen alde nagusia da zalantza handia izaten dela eta epe ertain/luzean aritzen dela. Era berean, elkarlanak berrikuntzaren abiadura azkartzen du. Gaitasun gehiago izanez gero, irtenbideen garapena azkarragoa izango da (zientzia, teknologia, negozio-ereduak, irtenbide sozialak...). Adibide bat, 242 urte baino gehiagoko historiaren ondoren, 2012an inprimatu zen azkenengo aldiz entziklopedia britainiarra⁴, wikipedia 2001ean sortu zen. Jimmy Walesek sustatutako ekimena inoiz ez bezalako elkarlan globalaren eredu da.

Elkarlanean berritu

Azken hamarkadetan negozio-eredu berriak sortzen ari dira eta lana egiteko modu berriak ere bai, elkarlanaren potentziala aprobetxatuz. Emaitzarik deigarrienetakoa elkarlaneko ekonomia edo elkarlaneko kontsumoa⁵ deitu zaiona izan da. Eredu hauen arrakasta elkarlana integrazteko potentzialitate handian dago "sare efektua" eragiten baitute. Hala gertatzen da produktu/zerbitzu baten balioa hazten denean erabiltzaile kopurua hazi delako (gizarte-komunikazioko tresnak, balorazio-plataformak, ondasunak erabiltzekoak, erabili gabe dauden baliabideenak, profesionalen merkatuenak⁶, elkarlaneko supermerkatuenak...).

Adibide askok argi uzten dute elkarlanaren bidezko aukerak identifikatzeko gai direnek urrea aurkitu dutela.

Elkarlanean aritu berrikuntzan

Arraroa da berrikuntzak erabat berriak izatea, gehienetan aurrez dauden elementuak konbinatzen dituzte, baina modu desberdinean. Beraz, baliabide ezagunetatik eta eskura daudenetatik sortzen diren irtenbide berriak iterazio jarraituen emaitza dira (proba-akatsa) eta aurreko porrot eta arrakastak aprobetxatzen dituzte. Beharrezko baliabideak erakundeetatik kanpo egoten dira sarri.

Ez da ohikoa beren kasa ari diren banakoek garatzea berrikuntzak. Aitzitik, pertsona berritzaileek beren gizarte-kapitala aktibatu beharra daukate beste



taldeetakoekin, toki desberdinetakoekin edo sektore desberdinetakoekin elkarrekintzan aritzeko. Gaitasun hauek berenganatzeko aukera eta gaitasuna dutenek aukera gehiago izango dituzte, beren ekimen berritzaileak ongi burutzeko.

Elkarlaneko berrikuntza ahalbideratzen duten ahaleginak hainbat eratarik artikulatu daitezke. Ondorengo orrietan horrelako jarduerak daude.

Elkarlaneko berrikuntzan zerikusia duten alde guztien balioa maximizatzeaz aritzen gara.

3. Gauzak errazteko, hitz honetan sartuko ditugu "lankidetzat" edo "taldekoa" bezalako esanahiak. "Elkarlana" kontzeptuak berrikuntzan ezarri gero zer irismen duen sakonago ikusi nahi dugu.
4. Entziklopedia britainiarra (1770-2012).
5. Azkenaldiko txostenek, EGABenak (Ekonomia eta Gizarte Batzordea: "Kontsumo-ohitua berriak, aldaketa sozial eta teknologikoak") eta Eusko Ikaskuntzarenak ("Beste ekonomia bate(ta)runtz Transizioa(k)") deskribatzen dute elkarlaneko ekonomia eta bere ondorioak zenbat alorretara hedatzen diren.
6. Jarduteko eredu berriak sortuz, esaterako, "gig economy", hau da, lan-egoera bat da eta aldi baterako lanetarako kontratu puntualen bidez langileak jarduerak horretarako behar den guztia ematen du, adibidez, Uberreko gidariak.

Berrikuntzako elkarlana babesteko jarduerak¹


ekosistemak

Ocean Living Lab²: Akitania-Euskadi-Nafarroa mugaz gaindiko elkarlaneko lehenengo ekosistema da, itsasoko eta irrist egiteko kirolen negozioa indartzeko asmoz. Gune honetan³ parte hartzen duten eragileak lanean ari dira gune hau inguru digital eraginkorra izan dadin teknologia aurreratua ezartzearen bidez, esaterako, sentsoreak, objektuen konektagarritasuna, web plataformak, komunikabideak, etab.

AIC-Automotive Intelligence Center: berrikuntza irekian oinarritutako zentroa da, automozio sektoreko enpresek beren lehiakortasuna hobetuko dute lankidetzaren bidez. ACICAE-Automozio clusterrak kudeatua, 30 erakunde daude bertan eta 700 profesional baino gehiago ari dira lanean bere instalazioetan⁴.

Wikitoki: 2014an sortu zen "lankidetzaren praktiken laborategi hau", Bilboko San Frantzisko auzoan dago eta 14 eragile ditu⁵. Wikitokik kontzeptu hauek ditu bere lanaren oinarrian: ko-kreazioa, hibridazioa, P2P, prokomun, ekintzailtza eta gizarte ekonomia, enpresa irekia, praktika artistikoak, gizarte teknologiak edo narratiba digitalak. Gainera, espazioak trukatzeko sarea sustatzen du eta 40 eragile baino gehiago daude sare horretan.⁶

Bilbao Berrikuntza Faktoria: ikaskuntza, berrikuntza eta ekintzailtza arloko proiektu aitzindaria da⁷, espazio bakar batean eta modu integralean ditu unibertsitate mailako trebakuntza (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzan Gradua, Mondragon Unibertsitatea) eta enpresa-ekimen berritzaileak sustatzen dituzten pertsonen erkidegoa (30 enpresa), ikaskuntza, sormena eta horien arteko lankidetzaren modu "naturalean" gertatzeko baldintzak sortuz.



berrikuntza-programa IREKIA

Berrikuntza prozesuetan gaitasun desberdinak sartzeko hainbat formula daude. Batzuetan ezagutza nahi izaten da (Innobasqueren Brunch&Learn), balio handiko ideiak partekatu, datozen tokitik datozela ("OpenIDEO", "ideas4allinnovation" edo "Quirky" crowdsourcing plataforma ezagunen kasua da). Jarraibide gehiago edo gutxiagoko programak ere garatzen dira azeleragailuen, inkubadoreen edo exkubadoreen bidez edo erronkak jaulkiaz.

BIND 4.0: azelerazio programa publiko-pribatua da, Eusko Jaurlaritzak sustatu du eta 24 astekoa da⁸; batetik, enpresentzako talentuak hautematen ditu eta bestetik, lehenengo faseetan dauden startupak azeleratzen ditu, Industria 4.0 alorrean lana egiten badute. Programa honek mentoring aurreratua, trebakuntza, finantzaziorako sarbidea (500.000 eurora arte) eta ekintza erakusleak ditu (demo-day eta Industry 4.0 ekitaldietan parte hartu).

OpenAzti (Marine & Food Innovation): etengabeko parte hartze kanala da, itsaso eta elikadura arloko beren ideiak Azti-Tecnaliarekin partekatu nahi dituzten guztientzat. Dela webgunearen bidez dela sare sozialetatik jasotzen dira proposamenak (Twitter + Grupo Marine Research LinkedInen + Grupo Food Research LinkedInen). Zentro teknologikoak hitza ematen du jasotako ideien garatzeko aukera aztertuko duela.

Bizkaia Open Future_: ekimen publiko-pribatu hau⁹ "Berrikuntza irekiko garajea" kontzeptuaren inguruan artikulatzen da eta BIC Bizkaia Ezkerraldearen instalazioak Crowdworking Ilgnen bihurtu ditu. Espazio fisiko honetan Industria 4.0ko proiektu teknologikoak sustatzen dira aukeratutako startupsetara berriaz bideratutako programen bidez eta ekosistema ekintzailera irekita dauden beste jarduerak batzuekin konbinatzen dira erronkak jaulkitzearen bidez. Era berean, beraien plataforma birtualaren bidez inbertsoreekin eta nazioarteko ekosistema ekintzailerako beste eragileekin topagune bat sortzen da.

Berrikuntza irekiko programa Inspire® - Petronor: programa honen xedea da Petronorrek enpresa jasangarri gisa dituen erronkei irtenbideak aurkitzea. Hori dela eta, Euskal Herriko sistema zientifiko-teknologikoaren lankidetzaren bidez, Repsol enpresak sustatutako INSPIRE® programa laguntzearen eta babestearen bidez. Programa honen xedea da gure gizartearen erronka energetikoei eta inguruko erronkei irtenbide anbiziotsuak aurkitzea. Gaiker, Ikerlan eta UPV/EHUko Materialen Fisika Zentroa izan ziren 2015eko deialdiko irabazleak.

laguntzekoPROGRAMAK

Berrikuntza babesten duten hainbat programek elkarlana sartu dute:

1. Eusko Jaurilaritzak sustatu eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2020ren alorretara bideratutako artean, hauek nabarmentzen dira:

I. **Hazitek:** ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak egiteko babesa. Proiektu hauek euskal enpresa-sareari zuzenduta daude eta banaka edo lankidetzan garatu daitezke.

II. **Elkartek:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen elkarlaneko ikerketa proiektuak eta potentzial industrial handiko ikerketak egiteko euskarria.

III. **Basque Industry 4.0:** industria-ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektuei babesa, fabrikazio aurreratuan aplikatutako EIKTen alorrean hornitzaile teknologikoetatik industria-enpresetara teknologia eskualdatzeari ekiten badiote. Proiektuaren ondorioz enpresa baten eta ikerketako eta ezagutza hedatzeko erakunde baten edo gehiagoaren arteko egiazko lankidetzan baldin badago, laguntza %15 hazi daiteke.

2. Lurraldeko eta tokiko erakundeen artean jarduera hauek daude gai honetan:

I. Bizkaiko Foru Aldundiak 2015ean egin zuen Elkarlanean¹⁰ lehenengoz. Programa honek gutxienez hiru enpresa independente (ete) dituen taldeen arteko elkarlana sustatzen du, berrikuntza proiektuekin zerikusia duten negozio-aukeren garapena sustatzeko, batez ere industria arloan, nahiz eta beste jarduera-sektore batzuk ere sar daitezkeen. 2017an ekintza-lerro berri bat garatu nahi du erakunde bitartekariak (clusterrak, garapen-agentziak, enpresa-erakundeak) proiektuak gara ditzaten eta horien bidez baldintzak sor daitezkeen enpresen agendetan elkarlana gero eta presentegoa egon dadin.

II. Gipuzkoako Foru Aldundiak garatutako programen artean hauek ditugu:

a. **Etorkizuna Eraikiz GipuzkoLab:** gizarte eta ekonomia arloko esku-hartzeko izaera praktikoko proiektu berritzaileak babesten ditu, Gipuzkoako arlo hainbatetan dituen erronkei erantzuteko planteatu badira¹¹. Bereziki azpimarratzen da "elkarlanean egindako lana berrikuntza dela berez, eta ekimenak sustatu egiten du diru laguntzak nahi dituzten proiektuak pertsona edo erakunde batek baino gehiagok eskatzea".

b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Gipuzkoar Sarearen Programa enpresa arloko I+G unitateak buru dituzten **elkarlaneko I+G proiektuak babesteko**.

III. Arabako Foru Aldundiak **Alava Innova 2017** programa sustatu du modernizazio ekonomikoa eta arabar ekoizpen-ehunaren lehiakortasuna hobetzeko jarduerak babesteko; eteentzat, autonomoentzat eta I+G+b eragileentzat. Bere helburuen artean berriaz aipatzen da erakundeen alderdi sortzailea hobetzeko prozesu eta elkarlaren garapena.

IV. Era berean, zuzeneko zuzkidura ekonomikorik ez duen arren, Gasteizko Udalak **"Hiri laborategia"** programaren bidez proiektu teknologikoa duten enpresen esku jartzen du hiria, demostrazioak egiazko inguruetan egiteko.



1. Tokia dela eta, ez da zerrrenda zehatza, baizik eta jardueren eta programen lagin bat. Innobasqueren webgunean emango dugu informazio hori zehatzago.

2. Living lab delakoak esperimentazio eta balidazio inguruak dira eta beren ezaugarria erabiltzaileen parte hartze goiztiarra da, garatzaileekin eta beste stakeholder batzuekin batera egiten dute lana eta berrikuntzako ziklo azkarrekin amaitzen da (García-Plaza, 2009).

3. Ocean living lab-en hauek daude: Agglomération Sud Pays Basque, Bidasoa Activa, EuroSIMA, Gaia-TEIC, Fomento San Sebastian & Surf city Donostia clusterrak, Bordeleko Unibertsitatea, Euskampus, ESTIA eta Quiksilver eta Tribord bezalako enpresak

4. <http://www.aicenter.eu>.

5. Wikitik Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren babesa du. 14 eragilez eratutako elkarte da: Amets Aldatzeko, Artaziak, Basurama, Clickea, ColaBoraBora, Dooroom, Histeria Kolektiboa, Ideatomics, Iker Olabarria, Josunene, Kultiba, Macarena Recuerda Shepherd, Montera34, Pez [estudio], Shareak, Ttipi studio eta Zaramari.

6. Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan espazio fisiko/lokala duten eragile/talde/enpresa/elkarte eta partikularren artean baliabideak eta espazioak partekatze proposamena. 44 espazio ditu: Ikusi: <http://redintercambio.wikitiki.org/wp-content/uploads/sites/2/2016/05/Dossier-RIE-mayo-2016.pdf>

7. Bilbao Berrikuntza Faktoria Mondragon Unibertsitateak eta Init Taldeak sustatu eta kudeatu dute Bilboko Udalaren lankidetzarekin.

8. BIND 4.0 StartUP! Basque Industry 4.0 Accelerator Program Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak sustatutako ekimen bat da eta ABB, Danobat, ITP, Euskaltel, Michelin, Grupo Alcor, MAIER, Petronor, CAF, Fagor-Ederlan, Mercedes-Benz, Ulma, Nem-Solutions, Iberdrola eta Cie Automotive bezalako enpresen lankidetzan du. Bere jardueraren gunean gai hauek daude: big data, manufaktura gehigarria, ikusmen artifiziala, konputazioa hodeian, hazitako errealitatea, zibersegurtasuna, sistema ziberfisikoak eta elkarlaneko robotika.

9. BIZKAIA OPEN-FUTURE Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Telefónica Open Future-n ekimena da.

10. Informazio gehiago hemen: www.bizkaia.eus/elkarlanean.

11. Etorkizuna Eraikiz-GipuzkoLab, bere jarduera-eremuak hauek dira: Gobernantza publikoko eredu berriak; berdintasuna eta dibertsitatea; ikus-entzunezko gaiak; laneko eta familiako biziak uztartzea; Hirugarren adina; Ingurumena eta jasangarritasuna; Erkidegoko lurralde-garapena.

EUSKADIZirkularrerantz berrituz.


Hazkunde ekonomikoaren eszenatoki globalean eragin zuzena du baliabide murriztu eta urri batzuen erabilerak eta lehengaien prezioen hazkundeak eta hegakortasunak. Honek eragin ekonomiko negatiboak sortzeaz gain, jasangarritasun arazo larriak ere baditu. Egungo eredu ekonomikoa ekoizpen eta kontsumo linealean oinarrituta dago; produktuak egin, saldu, erabili eta gero bota egiten dira eta horren ondorioz hondakin bihurtzen dira.

Euskadin industria-kontzentrazio garrantzitsua dago (BEGdren %23,95, europar batz bestekoa %19,3 den arren) eta beste herrialde industrializatueta bezala, energetiko eta materialen mendekotasun handia dago. Egungo kontsumo-eredua jasangaitza da, hondakinen arazoa sortzen du eta gizartean eragin handia du.



berrikuntza: ekonomiazirkularrerako trantsizioaren giltzarria

Berrikuntza balio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa sortzeko tresna gisa.



ekonomiaLINEALA



ekonomiaZIRKULARRA



zer da EKONOMIAzirkularra?

Ekonomia zirkularra ukiatu beharreko alternatiba da, enpresa eta lurralde mailako lehiakortasuna hobetzeko aukera. Eredu sozio-ekonomiko bat da eta baliabide mugatuen kontsumoarekin loturarik ez duen garapena eta balio-sortzea ditu xede.

Ekonomia zirkularra, bere diseinutik eta asmotik zaharberritzailea da; hau da, hondakinik ez sortzea da bere xedea, ekidin ezin direnak kenduz. Horren ondorioz, hau lortzen da:

- Kapital naturala zaindu eta hobetu, baliabideen stock mugatua kontrolatuz.
- Baliabideen etekina optimizatu produktuak, osagaiak eta materialak zirkularizatuz eta erabilgarritasuna maximizatuz.
- Ingurumeneko eragin negatiboak saihestu.

Ekonomia zirkular eredurako trantsizioa lortzeko aldaketa handiak ditu berekin eta eragile guztiak garatu beharko dituzte, hasi enpresetatik eta gobernuetara edo beste mota bateko erakundeetara arte; pertsonak ere aldaketak egin beharko dituzte. Hori dela eta, garrantzitsua da urrats txikiak emanaz aurrera egitea, txikiak baino irmoak izatea urrats horiek, egiazko eragina izatea.

- Edozein sistematako balio-katea osoan zehar daude aukerak, hasi lehengaiak eraztetik, diseinutik eta ekoizpenetik eta produktuak merkaturatzera eta sortutako hondakinak aprobetxatzera arte, dela ekoizpen industrialia izan, dela zerbitzuak eskaini edo hiri baten funtzionamendua izan, esaterako.

- Baliabide naturalak eta lehengaiak ahalik eta ingurumen eragin txikianekin lortzeaz ari da, zehatz esanda, eta berrerabili edo birziklatu daitezkeenei lehentasuna emateaz. Ekoeraginkortasun irizpideetan oinarritzen den diseinuak edo piezak etorkizunean desmuntatzea edo modularitatea sustatzen ditu, prozesu logistikoa eraginkorragoak ahalbideratuko ditu horrek, ondorioz, materialak berreskuratu egin ahal izango dira eta konpondu edo berriro manufacturatu balio kateko faserik aurreratuenetan.


- Produktuak merkaturatzerako garaian garrantzi berezia du produktutik zerbitzurako trantsizioan oinarritutako negozio-ereduak sartzeak. Digitalizazioak eta gauzen internetek funtsezko zeregina dute, produktuei inteligentzia ematen baitiete eta horri esker, esaterako, mantentze-lan prediktiboa edo prebentiboa egin daiteke, erabilera hobetu edo iraunkortasuna hazi.



Ekonomia zirkularerako aukerak euskal industriarentzat hondakinetatik



Hondakin ez arriskutsuak

Urtero **53,3 MT** material igarotzen dira euskal industria-sistematik. Horetatik **2,1 MT (%4)**, hau da **44 M€**, material birziklagarriki zaborregian bukatzen dute.



Energia


Euskal industriak kontsumitutako energiaren %40 hondar-bero bezala galtzen da. Hori berreskuratuz gero, gastu energetikoan urtero **190 M€** genituzke eta **6,3 M€** isurtze-eskubideetan.



Elikadura

Munduko elikagaien ekoizpenaren gastu ekonomikoa, soziala eta ekonomikoa hazten ari da.

Euskadin erosten diren elikagaien ia %8 zaborretara botatzen dira sukaldeen egin gabe; horrek esan nahi du biztanleko eta urteko **50 kg eta 200 euro** xahutzen direla.



Fabrikazio berdea Euskal Herria / Ingurumen programa markoa 2020 (Ihobe, Eusko Jauriaritza-Gobierno Vasco) | Ingurumeneko Nazio Batuen Programa (PNUMA) | Hondakinen prebentzioarako europar astea | Ihobe | OCRU | Euskadi Energia 2014 (EVE) | Waste Heat Recovery Technologies and opportunities in US industry (US Department of Energy) | Plan Globala bero proiektua: Ibilbide orria (2015) | Geuk egina OMEI 2014 merkatutik eta Carbon Trading EU-ETStik hartutako datuekin, martxoak 25.

INNOBASQUEREN proposamena.

Euskadi zirkularrerako trantsizioan Innobasquek duen proposamena da hiru irismen dituzten lau ekimen motaren bidez heltzea ekonomia zirkular horri.

Horrela garatzen dira ekintzak, proiektuak aktibatuz eta hedatuz, erreferentziatzeko nazioarteko eragileekin eta ekimenekin konektatuz, eta ekonomia zirkularren ereduaren eta horrek berekin dituen aukeren sozializazio garrantzitsua eginez. Hori guztia lagungarria da Euskadi egiazko emaitzekiko esperientzia zirkularrak dituen lurraldea izateko, emaitza horiek balioa eta inspirazioa ematen baitiote sare ekonomiko-sozial osoari.

Horretarako industria-eremutik helduko zaie ekimenei Euskadiko funtsezko sektore batzuetan, baita lurralde eremutik ere, hasi hirietatik eta irismen handiagoko plano batera arte eta kontsumoaren eremutik ere bai, bereziki landuko baita kontsumo ondorengo hondakinen gaia eta sentsibilizazioa.



elementuERRAZTAILEAK



Circular Basque: ekonomia zirkularra sustatu eta bultzatzeko hitza emandako erakundeen sarea

Innobasquetik, eta Aclima eta Ihoberen lankidetzari esker, Circular Basque sortu da, hau da:

- jarduera-sektore hainbatetako erakunde pribatu eta publikoen sarea; Euskadin ekonomia zirkularra sustatu eta inplementatzeko konpromisoa dute denek.
- ezagutza partekatzeko eta burutzen ari diren ekimenak ezagutarazteko espazioa.
- Euskadiko ekonomia zirkularren eragileak eta praktikak ezagutarazteko erakusleihoa, hauek hedatu eta zabaltu daitezzen, beste eragile batzuentzat eredu izan daitezzen eta Euskadi nazioarteko lurralde zirkular gisa kokatu dadin.

www.circularbasque.eus



Ekonomia zirkularra: Basque Industry 4.0ren ekimen estrategikoa

Basque Industry 4.0 da fabrikazio aurreratuan espezializazio adimenduna izateko euskal estrategia da. Esparru honetan, **ekonomia zirkularrean** ekimen estrategikoa identifikatu da. Innobasquek koordinatzen du eta bere xedea da balioa sortzeko mekanismoak definitu eta ezartzea (negozio ereduak, kudeaketakoak eta teknologiak), eredu sozioekonomiko zirkularrerako trantsizioan aurrera egin ahal izateko eta Euskadin fabrikazio aurreratuaren garapenak ez dezan esan nahi baliabideen kontsumoa proportzionalki hazi dela.

ZICLAK hondakinei balioa ematen egiten du lan eta enpresentzako negozioarako aukera bihurtu nahi ditu. Industriarako material berri, hiriko altzariak eta hiriko trafikorako produktu birziklatu berriak sortzen ditu. Hori guztia beren bizi-zikloa kontuan izanda, ingurumenean eragin txikiagoa izateko eta funtzionalitatea hazteko.

Gaur egun **ZICLA** da **ROLLING PLASTICS** proiektuko burua; horren bidez, Euskadiko baimendutako tratamendu zentroetan jasotzen diren erabileratik kanpoko ibilgailuen piezetatik datozen plastiko hondar korrontek bereizi eta kalitate handiko utzikin plastiko berriak egiten dira.



ZICLA

www.zicla.com

Urtero milako tona hondakin sortzen dira eta zabortegietara botatzen dira edo errauskailuetan erretzen dira.



www.ulmacarretillas.com

ULMA Carretillas Elevadorasak irtenbide logistiko integrala eskaintzen du eta bezero eta sektore desberdinen biltegiarako edozein beharretara egokitzen da.



T-REX europar proiektua koordinatu du **Tekniker Fundazioak** eta **ULMA Carretillas Elevadoras** enpresak ere parte hartu du **Cie Legazpiz** gain. Bertan, zerbitzura bideratutako negozio-eredu berriak garatu dira. Produktuen bizitza luzatzea planteatu da teknika prediktiboak, berdiseinuak eta berrerabiltzekoak erabiliz. Produktuaren elementu kritikoaren egoera teknikoaren online monitorizazio sistemetan jasanaz erabakiak. Horrela, irtenbide berritzaileak eta bezeroen beharretara egokituak eman nahi dituzte eskaintza horretan aurrera eginaz. IoT, sentsorika eta big datari esker, zerbitzazio eredua erraztu egiten dute kasu honetan.



DIGIMET

www.digimet.es

DIGIMETek metalurgia-labe mota berri bat garatu du, hainbat metal eta beren oxidoak dituzten hondakinak berreskuratzea ahal izateko.

Oinarri teknologikoa duen enpresa hau **TECNALIA**tik sortu zen **KEREON Partners** inbertsio-funtsaren babesarekin. Bere teknologia balidatu egin da eskala industrialeko altzairutegiko hautsen tratamenduarekin ingurumen arazoa eta arazo ekonomikoa zena negozioarako aukera bihurtu da. **DIGIMET** teknologiari esker, modu ekonomikoa eta bideragarria eta zero hondakin izateko xedez, altzairutegiko hautsak purutasun handiko zink-kontzentratu bihurtzen dira, kalitate handiko burdin eta eskoria bizigabe ere bai, hainbat aplikaziotan erabili ahal izateko. Industriako ekonomia zirkularraren adibide argia da.

Bere jarduera nagusia konponketa, zaharberritze eta bermanufaktura zikloetan oinarritzen da; berriro ere balio katean sartzen dira erabilitako motor elektrikoak berregokituta, konpunduta edo berriro manufacturatuta, izan ere, jatorrizko prestazioak hobetzea lortzen dute eta bizitza erabilgarria luzatzen zaie horrela. Era berean, erabiltzaile guztien esku jartzen dute beren 2. eskuko motorrak eta erregulatuak saltzeko edo alokatzeko aukera, birziklatzea eta berrerabiltzea errazten duen online salerosteko plataforma baten bidez.



MOTORLAN

www.motorlan.com

MOTORLANEK mota guztietako motor elektrikoak eta horien erregulazio elektronikoa konpontzen eta mantentzen ditu.

«Deskarbonizazioa, energiaren demokratizazioa eta eraldaketa digitala dira energia sektorearen erronkak»

Emiliano López Atxurra

Petronorrek presidente exekutiboa

Tecnaliako presidentea

Emiliano López Atxurra da euskal berrikuntzaren alorreko bi indartsuren buru: Petronor eta Tecnalia korporazio teknologikoa. Innobasqueko presidenteordea ere bada. Abokatu, nazioarteko gaietako eta erkidegoko zuzenbideko graduondoko ikasketak dituena, López Atxurrak bere esperientzia profesionala zenbait sektoretan garatu du, baina batez ere energiarenean, eta sektore horretan daramatza 20 urte.

Bere ibilbide handiari esker, energia sektorea ondo ezagutzen du. Zure ustez, zein dira sektorearen erronka nagusiak?

Gaur egun, ezagutza sakona, izan ere zalantza eta erronka ugariko inguruan gaude. Energia izan da gizateriaren historiako garai guztietako motorra eta bere eboluzioaren bizkarrezurra.

Eguneko erronkak? COP21 delakoaren (Klima Aldaketaren Biltzarra, Paris 2015) biderei jarraituz gero, hiru erronka handi ditugu. Lehenengoa deskarbonizazioa da; bigarrena kontsumo elektronikoaren demokratizazioa eta argindar hornikuntza munduko herrialde guztietan eta, bereziki, garapen bidekoetan. Eta hirugarrena, energia sektorea bera eraldatzea, ekonomia digitala, bioteknologiaren aurrerapenak eta adimen artifizialaren garapena direla eta. Azken finean, egungo zalantzak aukera hutsa dira, izan ere, eraldaketa teknologikoaren eta energetikoaren erronkari aurre egin beharra daukagu, gure buruak erabat ixten ez baditugu behintzat.

Petronorrena egiazko eraldaketaren historia da. Gaur egun aldaketa estrategiko bati heltzeko erronka du. Zer esan nahi du energia enpresa dibertsifikatu bihurtzeak?

Petronorren historiarekin jarraitzen dugula esan nahi du. Konpainia hau zentral elektrikoentzako fueloleoa ekoizteko sortu zen eta horrela elektrizitatearen balio katean parte hartzeko; gaur egunera iritsi da eta mugikortasunaren balio kateko funtsezko zatia da.

Petronorrek erreferentzia izaten jarraitu nahi du energiaren eta mugikortasunaren alorrean, eta horregatik ekoiztu eta eskaini behar ditu produktu eta zerbitzu energetiko berriak euskarri desberdinetan, merkatuaren eboluzioari eta bere eskariei begiratuz.

Horrela, adimen artifizialaren bidezko berrikuntza teknologikoa Petronor serbitzatzeko tresna bat da. Eskura dauden teknologia berriak sartzearen bidez eraginkortasun energetikoa lortzea, lehiakortasunerako faktorea da. Deskarbonizazioa erronka estrategikoa da eta ekoizpen eta mantentze prozesuaren eraldaketa dakar. Mugikortasun elektrikoa, kontuan izateko hobia eta merkatu berrian sartzeko tresna, mikro-sareak eta banatutako sortzea bezala. Eta hori guztia erronka berrien erantzunen markoan, gure industria-esperientzia oinarri hartuta.

Petronor Innovación sortu duzue, 15 milioi euroko aurrekontuarekin eta 15 ikertzailearekin. Zer helbururekin jaio da?

Berrikuntza, eraginkortasun energetikoa eta mugikortasun elektrikoa ez dira Petronorren eremu exogenoak. Petronor Innovación filiala da eskura dauden teknologia berriak, digitalizazioa eta inteligentzia artifizialaren integrazioa hautemateko erantzuna, dela orientazio estrategiko berrian dela ekoizpen kudeaketan.

Petronor Innovaciónen xedea da energia arloan merkatuak dituen eskarietara egokitzeko eta eraldatzeko tresna izatea. Gure eraldaketa teknologikoaren prozesuan sartu nahi ditugu Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko gaitasun berritzaileak.

Are gehiago, Petronor Innovación jada izendatu dute Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko eragile. Sare honen zer balorazio egiten duzu?

Nire balorazioa positiboa da, Tecnaliako presidente batek ezin baitu aurkakorik esan. Eta positiboa da, gaitasun handiko ikertzaile plataforma bat baitago, bokazio handikoa eta nazioarteko sareetan sartua. Eta dagoen kalitate hori oinarri hartu eta giza kapital bikain honen kudeaketa hor ezartzea lortu behar da, eta antolakuntza arloko eraginkortasun handiko proiektu eta prozesuetan kokatzen saiatu.

“Berrikuntza teknologikoa enpresaren bihotz estrategikoan dago edo alferrik gabiltza”.

Petronorrez gain, Tecnaliako presidentea ere bazara ekainaz geroztik, eta 2020rako bere xedea euskal enpresekin bere jarduera %50 baino gehiago haztea da. Nola lortuko duzue?

Plan estrategikoei errespetua diet, kudeaketa eraginkor baten lerro nagusiak badira. Paperak dena jasaten baitu. Ez naiz 2020rako helburuetan sartuko. Etorkizunak gehiago kezkatzen nau, 2020rik ez baitago orainak balio ez badu eta 2020 oso gertu dago.

Gure erronkarik handienetako bat da hau onartzea da: berrikuntza teknologikoa ezin dela laguntza publikoen mende dagoen faktorea izan enpresentzat. Berrikuntza teknologikoa enpresaren bihotz estrategikoan dago edo alferrik gabiltza. Enpresen eta Tecnaliaren arteko harremana berriro lotu beharra dago, berriro sendotu beharra. Ondorioz, balio kate bakoitzean ahalegina egin behar da, hasi enpresa bultzatzailearekin eta txikienera arte, denak berrikuntza teknologiko artikulatuko ekosisteman elkarri lotuta egon daitezen.

Amaitzeko, nola baloratzen duzu Innobasque, berrikuntzaren aldeko lankidetzaren publiko-pribatuko plataforma?

Innobasque bikaina iruditzen zait prozesu legez, Pedro Luis Uriartek definitu zuen bezala. Gaur egun, sorrera ideia oinarri hartu eta baliabidea optimizatu beharra daukagu eta modu eraginkorrean eta garapen partekatuan koordinatu plataformak; hori guztia historia ekonomikoan eta industrialean herri gisa bizirauteko izan dugun oinarritzko printzipioarekin bat: lana, trebakuntza eta lankidetzaren.



proiektuBERRITZAILEAK.



VE INTERACTIVE Merkataritza elektronikoaren aukerak maximizatuz

Ve Interactive Bilbao britainiar multinazional baten egoitza izatetik teknologia sektorearen erreferente izatera igaro da Euskadin. Arrakastaren giltzarrietako bat bere berrikuntza eredia izan da; bertan lana egiten dutenek beren ezagutza gainerako langileekin partekatzen dute eta beste enpresa eta pertsona ekintzaileekin ere. Horretarako, Ve Interactivek gai desberdinei buruzko hitzaldiak antolatzen ditu aldiro eta Bilbao Tech Week bezalako jardunaldiak ere bai; horien bidez sektore teknologikoaren potentziala Euskadin hedatzen laguntzen dute.

E-commercearen espezializatutako britainiar multinazional honen adierazle dira gaztea izatea eta mentalitate disruptiboa edukitzea, 850 langile ditu 28 herrialdetan. Ve Interactive aditua da Programmatic Displayn, web trafikoa sortzeko; onsite engagement-en ere bai, eta honen bidez atarietan nabigatzen ari denari alternatibak proposatzen zaizkio, bila dabiltzana aurkitzen ez badute; eta re-marketing arloko azken eredia garatu du, online dendatik irten duenarentzat. Ereduek honek posta elektronikoa bezalako tresnak erabiltzen ditu erabiltzaileari eskaintza berriak aurkezteko eta horrela erosketari utzi zuen puntuari bertan berreskuratzen du edo, horrelakorik ezean, erosketari ez egitearen arrazoiak jakiten ditu.

Ve Interactivek barneko ekintzailetza sustatzen du. Zentzu honetan, Travioor bezalako proiektuak abian jartzea babestu du, langile-ohi batek sustatutako bidaien ataria; gaur egun multinazionalaren Bilboko egoitzan 12 lagun ari dira lanean eta beste 10 Londreskoan eta aukera handiekiko spin-off bihurtu da.

www.veinteractive.com



ESTUDIOS DURERO Munduko 3D full color inprimaketa aurreratuena

Estudios Durero industria sortzaile aitzindaria da teknologia berriak eta ekoizpen grafiko eta artistikoko prozesuak sartzen. Retailaren munduan nazioarteko jarduerak egiteaz gain eta bere Arterako Laborategitik artistekin lanean aritzeaz gain, orain munduko 3D full color inprimatzerik aurreratuena du.

Estudios Dureroren 3D Stratasys J750 inpresora berriari esker, 360.000 kolore baino gehiagotan inprimatu daiteke eta malgutasuna eta zurruntasuna, gardentasuna eta opazitate maila desberdinak, leuntasuna eta zimurtasuna konbinatzen dituzten akaberak izan. Bereizmenik handienarekin eta ekoizpen, margotu eta mihiztatu ondoren manipulatu beharrik gabe egiten duen prozesu baten bidez. Jada sortu daiteke erabat bukatutako 3D objektu bat erabat sinplifikatutako prozesu baten bidez giltza eskuan zerbitzuari esker: 3D artxiboa diseinatu edo prestatu eta ekoiztu.

3D inprimatze arloan inflexio puntua, Estudios Durerok hamaika aukerari atea ireki dizkie diseinu industrialaren munduarentzat eta prototipatuarentzat, arkitekturarentzat, ikus-entzunezko ekoizpena eta artearentzat.

www.estudiosdurero.com



LUDUS Errealitate birtualaren aplikazio industrialia

Ludus startup bat da, merkatuko beharretara egokitzen jakin du eta teknologiarekin batera eboluzionatu du. 2011n sortua beste marka batekin eta bideojokoen merkatuan oinarritua, handik hiru urtera errealitate birtualari heldu zioten, teknologia hau merkatuan nola sartzan ari zen ikustean. Ludusekin errealitate fisiko bat testuinguru %100 errealistan adierazi daiteke eta industrian, laneko arriskuei aurrea hartzeko eta larrialdietan erabili daiteke. Bere zerbitzu berritzaileei esker, Ludus sektoreko erreferenteetako bat da.

Beren negozio lerroaren ardatza enpresentzako neurritan egindako proiektuak dira, adibidez, Iturrirentzat egina, suhiltzaileentzako kamioiak egiten dituen enpresa honek eta errealitate birtualari esker, beren bezeroek ibilgailuak ikusi eta elkarreragin egin dezakete, baita horiek gidatuko dituztenak entrenatu ere.

Baina lizentzia eman daitekeen beren produktuetakoa bat izan da industrian eta arlo mediatikoan aitortzea eman diena: orga jasotzailea erabiltzen ikasteko simulatzailea Vibacar enpresa logistikoarekin lankidetzan; horren bidez, erabiltzaileek segurtasun osoz egin ditzakete entrenamenduak.

Bere plataforma teknologikoaren lorpenen artean beste bat dago: betaurreko guztiak elkarrekin bateragarriak izatea lortu dute edo pertsona batek baino gehiagok betaurrekoak erabili ahal izatea eta espazio birsortua partekatzea. Era berean, konpainiak monitorizazio sistema bat garatu du eta simulazioan gertatzen den guztia gordetzen du; horri esker, bezero batentzako proiektu oro oinarri sendo batekin hasi daiteke eta garatzeko denborak murriztu.

www.ludus-vr.com



DRONE BY DRONE Aire-espazioaren demokratizazioa

Dronak Bigarren Mundu Gerran jaio ziren tiro-praktiketan apeu bezala erabiltzeko, baina duela urte batzuk beste erabilera batzuk eman zaizkie aireontzi hauei. Gaur egun neurrigabeko lehia dago, azken urteetan sektore honetan 1.600 enpresa baino gehiago sortu dira eta gero eta erabilera gehiago dituzte tresna hauek.

Drone by Drone 2014an jarri zen abian eta dronen bidez zerbitzu mota desberdinak eskaintzen dituzte. Berrikuntzaren aldeko apustu handia egin dute, eta beren tresnek ateratako argazki eta bideoetan 3D teknologiak erabiltzen aitzindariak dira. Sektorean eragin handia izan duen azkenengo garapenetako bat euskarri bat izan da eta euskarri horren bidez "DJI Inspire 1" dronari "Samsung Gear 360" kamera jar dakioko eta horrela irudi eta bideo panoramikoak erregistratu. Horren adibideetako bat Bizkaiko Foru Aldundiarentzat eta Basalanentzat egindako lanetako bat da, Ondarroako Kamiñalde auzoan mendiaren hegala erori zenean. Bizkaitar enpresa gazte honek ikus-entzunezko zerbitzuak eskaintzeaz gain, teknikoak, zehaztasuneko nekazaritza, industria-indusketak, segurtasuna, itsasoko, salbamendua, kartografia, arkeologia, pilotu berrientzako trebakuntza eta aholkularitza eta dronen salmenta pertsonalizatua eskaintzen ditu.

www.dronebydrone.com

proiektuBERRITZAILEAK.



NESPLORA

VR eta bideo-jokoak, giza burmuinaren funtzionamendua ezagutzeko

Teknologia berriek psikologiako profesionali laguntzen diete, burmuinaren funtzionamendua hobeto ezagutzen. Nesplora enpresa dugu horietako bat; giza jokabidea aztertzen du errealtate birtualaren laguntzarekin, neuropsikologiarekin konbinatuta, pertsona baten prozesu kognitibo eta psikologikoetako gorabeherak aztertzeko.

Enpresa onek Monité bezalako tresnak garatu ditu, "bullyingari" aurrea hartzeko bideo-jokoa; Isla Calma ere bai, egoera antiingeneoetan pazienteak distraitzeko; edo Nesplora Aula eta Nesplora Aquarium, atentzio-prozesuak ebaluatzeko.

Era berean, Horizonte2020ko ETE tresna-ren onuraduna da; EBren programa honen bidez diru-laguntza bat lortu baitu VRMIND proiekturako. Bizitza errealeko inguruen erreplika egiten du osasungintzako profesionalen kontsultan, horren ondorioz, tratamenduko denbora murrizten da eta diagnostikoan akats gutxiago egon daiteke. Plataforma honetan daude: Nesplora Aula, Nesplora Aquarium, memoria tipoak neurtzeko 'software' bat eta nariadura kognitibo arina hautemateko garapen bat.

Nesplorarentzat teknologiak eta berrikuntzak garrantzi handia dute. Bertako berrikuntza zuzendaria, Gema Climent, izan da EBren Emakume Berritzailea Saria 2017ko 12 finalistetako bat. Climententzat berritzea ez da behar bat sortzea, baizik eta arazo bat konpontzea.

www.nesplora.com



GOGOA

Exoeskeletoak errehabilitaziorako eta mugikortasunari laguntzeko

Gogoa Mobility Robots euskal konpainia gazte bat da eta exoeskeletoak merkaturatzen ditu; exoeskeleto hauek oinetan kalteak dituzten pertsoneri errehabilitatzen laguntzeko izan daitezke edo gaixotasun neurodegeneratiboak dituztenei mugitzen laguntzeko.

Gogoa 2014an eratu zen eta realiZe kooperatibako bazkideak, CSICeko langileak eta Toledoko Paraplejikoen Ospitale Nazionalako langileak daude bertan.

Gaur egun hiru produktu desberdin garatzen ari da Gogoa. HANK, exoeskeleto bat da eta hasi aldakatik eta oinetaraino doa, aluminiozko hainbat barra ditu oin bakoitzaren alde banatan jarrita sei motorren bidez lotuta. Istripuren bat izan dutenak edo bizkarrezur muineko lesioak dituztenak errehabilitatzeko edo iktusen bat izan dutenei mugitzean laguntzeko edo gaixotasun neurodegeneratiboren bat dutenentzako balio du.

BELT beste produktu bat da, antzeko funtzionamendua du, baina belaubaren mugimendua errehabilitatzea da bere xedea, horri esker, aulki batean eseri daitezke edo hori ipini eta ibili ere bai.

Hand of Hope esku baten forma eta neurria dituen robota da eta behatz bakoitzari mugitzeko laguntza eskaintzen dio modu indibidualean.

Enpresak saio klinikoak egin ditu Europako errehabilitazio zentrorik garrantzitsuenetako batzuetan eta orain finantzazio txanda bat egin nahi du bere produktuak garatzen eta mundu osoan merkaturatzen jarraitzeko.

www.gogoa.eu



ZUBIETXE

Libu proiektua: bigarren eskuko liburuak eta topagunea

Zubietxe elkarteak Bizkaia osoan gizartetik kanpo dauden pertsonak artatzen ditu; buruko gaixotasunak dituztenak, drogarekin arazoak, gatazka judizialak, etxerik gabek edo muturreko baldintzetan migratu behar izaten dutenak.

Talde honi ikusgarritasuna eskaintzeko eta beren gaitasunak gizartearen aurrean balioan jartzeko sortu zen Libu proiektua; bigarren eskuko liburuak 3 eurotan saltzen dituzte, desberdinen arteko topaketarako espazioa eskaintzen dute eta gazteenei kultura gerturatzen diete musikaren, irakurketa saioen edo ipuin kontalarien bidez.

Libuk liburuen dohaintzak onartzen ditu eta lortzen dituen irabaziak proiektu berrietan erabiltzen dituzte, pertsonak eskusioaren zirkulu horretatik ateratzeko enpleguaren bidez.

Gizartetik kanpo geratutako pertsonak gizartearen berriro sartzeko bideak aurkitzea da berrikuntza Zubietxerentzat. Hori dela eta, Libu lana egiten dutenak sensibilizatzen eta horientzako egitura bat sortzen saiatzen dira, autonomoak izan daitezen eta elkartean bertan ekintzailertzan hasi. Libuk bere burua finantzatzea lortu du eta irabaziak Zubietxeko beste proiektu batzuetara bideratzen dira.

Liburen etorkizunean langile gehiago sartu behar dira. Hori dela eta, merkatu birtualaren bidez hazi nahi du eta online salmentaren kudeaketan berritu. Horregatik beren software propioa garatu dute liburuak kudeatu ahal izateko, nahiz eta online atarian eta biltegiko logistikan ere inbertitu beharra eduki.

www.zubietxe.org



FRESMAK

Eusle hidraulikoak doitasun handiko manipulazioentzat

Fresmakek presio handiko sistema hidraulikoak eta mekanikoak egiten ditu piezei heltzeko eta gero doitasun handiz ebaki, moldeatu edo leundu ahal izateko. 50 urteko historia duen enpresa honen bokazio berritzailearen adierazleetako bat da azken urteetan 20 patente lortu izana.

Berrikuntza eta ikerketa funtsezkoak dira enpresa honek dituen erronkei aurre egiteko, bere leloa hau da: "berrikuntza ez da aukera bat, baizik eta jarrera bat". Bere I+G unitateak F-GRIP garatu du, atxikidura itzulgarriko printzipioan oinarritutako lotze-sistema. F-GRIP lau urteko lanaren fruitua da, I+G taldea eta UPV/EHUko Polymat institutua lau urtez aritu baitira euste-tipo ideala zehazten. F-GRIPk polimero bifasiko nanoegituratu bat erabiltzen du, hozten denean duen euste-gaitasuna zentimetro koadroko 112 kgf (kg indar) da. Piezatik banantzeko, beroa jarri behar zaio eta gel itxura hartzen du. Bestalde, berrerabilgarria eta itzulgarria da.

Ikerketa-proiektua CDTItik igaro zen, hau da, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentrotik eta hiru urtez hainbat proba egin ziren osagaien konbinazio perfektua lortu arte. Garapen honi esker, ETE tresna-ren EBren Horizonte 2020 programako finantzazioa lortu dute aeronautikoa bezalako sektore espezializatuan produktua merkaturatzeko.

www.fresmak.com



elkarrekin.

Gogoa den tokian, aldaparik ez

berrikuntza ELKARLANEAN.

Innobasque sare indartsua da eta bertako 1.000 gizarte-erakunde baino gehiagoren arteko elkarlana errazten du. Denon artean herrialde lehiakorra eta kohesionatua eraikitzen dugu.

RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiarekin bat eginez

ZTBP hedatzeko jardunaldia "Especializazio adimentsua, estrategia berritzailea Euskadira".

Innobasqueko asteartea Hileroko hitzordua dibulgazioko foro ireki honetan, 50 edizio baino gehiago.

Basque Industry 4.0 pilotaje-taldea eta 4 ekimen estrategiko:

- **Beroa** Hondar-beroa erabili industria-prozesuetan.
- **Ekonomia zirkularra** Etorbizuneko berrikuntza-proiektu eragile publiko/pribatuekin.
- **STEAM** Ikaskuntzarako eredu berria.
- **Nazioarteko kokapena** Basque Industry 4.0.

Berrikuntzaren Euskal Sistema ebaluatuz

Berrikuntza 2016ren **Innobasque txostena**.

Basque Innovation Perception 2016 308 aditu I+G+bri buruz Euskadin.

Euskal

I+G+bren nazioartekotzea sustatuz

Europako I+G+b proiektuetako euskal partaidetzaren **behatokia**.

Enterprise Europe Network.

ERA-NET.

Gizarteko erronkak sartuz

Integra Sarea Osasun arloko arreta integraturantz.

Elkarlaneko zuzenbidea Gatazkak ebazteko berrikuntza.

RRI Tools Ikerketa eta berrikuntza arduratsuak.

GGKE jardunaldia Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak.

Demokraziaren eta herritarren parte hartzearen **Liburu Zuria**.

Herri Laborategia Erkidegoko kultura eta taldeko hazkundera.

Bizkaia, lurralde irekia.



Kultura berritzailea sustatuz

Global Innovation Day Berrikuntzako protagonisten arteko topaketarik handiena.

Brunch & Learn Ikaskuntzako erkidegoak, ezagutza partekatu eta igortzeko.

Berritzeko elkarlanean

Gosasun Berrikuntza osasunean, ohitura osasuntsuen bidez.

Lekandene Berrikuntza aztertzeko espazioa.

Test in Red Produktuak aztertu eta kontrastatzeko lankidetzaz-espazio berritzailea.

Innobasque Exchange Berritzeko lankidetzan aritzearen erronka.

Be Sarea Industria-elkarlaneko berrikuntza Bizkaian.

Foro Ágora Arabako berreskuratzea sustatzeko.

Euskal berrikuntzaren lorpenak aitortuz

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea Lorpenak balioan jartzeko eta ezagutzera emateko astea.

Inaugurazioa Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluarekin.

Gazteria tartean sartuz STEAMetan

FIRST Lego League Euskadi Ikasten ikasteko lehia adiskidetsua.

Learning Sessions 19 zentrotako 800 ikasleri ezagutza transferitzen.

Inspira STEAM 17 emakume neskatoak inspiratzen.

Ada Byron Saria Emakume Teknologikoari Teknologia arloko emakume erreferenteentzako ikusgarritasuna.

ZTBP2020ekin bat eginez.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2020ren zeregina da hazkunde ekonomiko jasagarria eta enplegua hobetzea, espezializazio adimendun eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sistemaren eraginkortasuna hobetzean oinarritutako ikerketa eta berrikuntza politikaren bidez.

emaitzak **ZTBP2020**

helburuak:

2014 - 2020 | 11.100.000.000 €
ZTBPaldia | inbertsio publiko pribatua

1 Espezializazioa


I+G+b baliabideak eta inbertsioak kontzentratu espezializazio arloetan, inbertsioen eraginkortasuna hobetzeko, gaitasun berriak sortzeko eta daudenak optimizatzen.



3 Emtzetara orientatu

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistema osoa, ekoizpen zientifikoa hazteko, sortutako ezagutza babesteko eta produktu berrien ondoriozko sarrerak babesteko.

Indexatutako argitalpen zientifikoak



Lehenengo kuartilean indexatutako argitalpenen %



PCT/EPO patente eskariak



produktu berrien salmenten %



5 Enpresa berritzaileak

Euskal enpresek beren lehiakortasuna hobetu dezatela berrikuntza jasagarriaren bidez.



2 Oinarritzko ikerketa eta garapen esperimentalak


Oinarritzko ikerketa eta garapen esperimentalak sustatu, herrialde eta eskualde aurreratuagoekin dauden lehia arloko desabantailak gainditzeko eta horrela gure enpresak lehiakorak izan daitezzen.

	Funtsezko ikerketa	Ikerketa industrialak	Garapen esperimentalak
2016	%14	%47	%39
2020	%15	%30	%55


4 Nazioarteko funtsak

I+G+b arloan funtsak bereganatzea areagotu; Horizon 2020 europar programatik eta nazioarteko funts pribatuetatik datozenak.

nazioarteko finantzazioaren %



euskal finantzazioaren % programa markoko funtsa oinarri hartuta



Nazioarteko finantzazio pribatua



6 Kualifikazioa

Ikertzaileen kualifikazioa hobetu eta doktore titulazioak hazi, emaitzak optimizatzen.

langile ikertzaile guztietatik doktoreen %



enpresetako langile ikertzaile guztietatik doktoreak %



ESPEZIALIZAZIO adimentsua: estrategia berritzailea Euskadirako

Espezializazio adimenduneko estrategiak lehiakortasunerako bidea dira, lurralde mailako eraldaketa ekonomikoaren bidez, berrikuntza eta I+G indartuz, eskura dauden baliabideak lehenetsun sorta mugatu batean pilatuz I+G arloan inbertsio pribatua sustatzeko eta horrela eskualdeei zeresan handiagoa emateko berrikuntza politikan. Kevin Morgan Europako Batzordeko aholkulariak aurkeztu zuen RIS3 strategiaren kanpoko ebaluazioa Euskadin, Europar Batasuneko "zorrotzonetakoa".



Eusko Jaurlaritzak antolatutako jardunaldia Innobasque, Orkestra eta Elkargirekin lankidetzan, Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntzaren zuzendaritza orokorraren, Cardiffeko unibertsitatearen, UPV/EHuren eta CIE Automotiveren parte hartzearekin.

basqueindustry4.0

Innobasquek parte hartzen du Basque Industry 4.0 fabrikazio aurreratuko euskal estrategia hedatzeko ardura duen pilotaje-taldean. Gainera, ekimen estrategiko hauetako buru da:

BEROA PROIEKTUA



Beroa proiektua ekimen estrategikoa da eta bere xedea da baliabideen erabileran industria eraginkorragoa lortzea, fabrikazio prozesuetako hondar-beroa aprobetxatzearen bidez.

EKONOMIA ZIRKULARRA



Ekonomia zirkularra ekoizpeneko eta kontsumoko eredu ekonomiko berria da eta balioa sortzeko hainbat mekanismo eskaintzen ditu, baliabide mugatuen kontsumoaren mende egon gabe.

STEAM KOMPETENTZIAK



STEAM heziketari esker ikasleek berrikuntzarekin zerikusia duten trebeziak eta kompetentziak garatzen dituzte eta herrialde baten lehiakortasuna hazten dute.

NAZIOARTEKO KOKAPENA



Basque Industry 4.0 strategiaren nazioarteko kokapena, hazteko potentziala duten nazioarteko merkatuetan ongi kokatuta dauden enpresa-taldeak daudelako Euskadin.

ZTBP2020 zabalduz

"Innobasqueko astearteetan" hilero berrikuntzako protagonistak elkartzen dira dibulgaziorako foro irekian eta euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradaren pean kokatzen dute.

2016an Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako lehentasun estrategikoak ezagutarazi ziren. Lehentasun hauek osatzen dute espezializazio adimendunaren estrategia (RIS3), balio erantsi handiko arloetan sakontzen du Euskadin hazkundea eta enplegua sortzeko produktu eta zerbitzu berriak sortzeko.



Espezializazio adimenduna kultura eta sormen arloko industrietan

Euskadiko kultura eta sormen arloko industrien sektorean 14.459 enpresa daude (guztiaren %9) eta 70.000 lagunek egiten dute lana (enpleguaren %8). Euskal BPGri %3 eta %5 arteko ekarpena egiten dio. 15 azpisektore ditu: arkitektura, diseinua, moda, ikus-entzunezkoak eta eduki digitalak, zinema, bideo-jokoak, musika, arte eszenikoak, arte bisualak, publizitatea eta marketina, kultura-ondarea, artisautza, edizioa eta hizkuntzako industriak.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Dimensión agenzia; Eiken; eduki digitalaren eta ikus-entzunezko edukiaren euskal clusterra; Habic, ekipamendu, zur eta diseinu arloko euskal clusterra; BasqueGame (Gaia clusterra); Skunkfunk; Cookplay; Estudios Durero; Mondragon Lingua; Dhemen Studio; Santa Maria katedrala Fundazioa eta Kutxa Fundazioa.


INNOBASQUEREN
ASTEARTEAK 2016KO 7



54 ERAKUNDE BAZKIDEN
PARTE HARTU



1.200 BERTARATU





Euskal Herriko Berrikuntzaren IX. Gidaren aurkezpena

Gida honetan euskal berrikuntzaren ibilbidea dago Berrikuntzaren Euskal Sistemaren lorpenik nagusien bidez.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Estrategia Empresarial, Eroski, Koopera, i-Sare Microgrid Gipuzkoa, Windbox, Gerokon, Ideable Solutions, Urkide ikastetxea, Bizintek, Innovalia, Hibrilaldiak eta Leartiker.



Open Datatik Big Data-ra Euskadin

Big Data datu kopuru ikaragarriak aztertzen eta gurutzatzen ditu joerak eta patroiak identifikatzeko eta horrela negozio aukera berriak errazteko eta erabiltzen dituzten erakundeen lehiakortasuna hazteko. Europar Batasunean Open Data eta Big Data konbinatuaz BPG %1,9 hazi daiteke.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia saila; Deusto Forum, Herrero y Asociados, Urbegi taldea, Alorza.net, Euskaltel, The Makery, Irontc, UPV/EHU.



Osasun arloko ikerketa eta berrikuntza Euskadin

Biozientziak urtean %10 hazten ari dira beren gaitasun zientifiko-teknologikoetan egindako inbertsioari, ikertzaileak hartzeari eta oinarri teknologikoa duten enpresa berriak babesteari esker. Sektore hau ia ez zegoen Euskadin duela 15 urte, gaur egun 75 enpresa ditu eta urtero 120 milioi euro inguru inbertitzen ditu I+G+b arloan.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, BIOEF, OWL, OSI Araba, Progenika, Ikerbasque eta CIC bioGUNE.



Energia adimenduna, espezializazio-estrategia Euskadirako

Euskadin sektore energetikoan espezializazio maila handiko 343 enpresa daude; 46.800 milioi euro inguru fakturatzeko dituzte, horietatik 15.000 Euskadin sortzen dira eta enplegatutako 63.400 langileetatik 21.000k Euskadin egiten dute lana. Industria honek 240 milioi euro inbertitzen ditu urtean I+G arloan eta 2.400 ikertzaile dabilta.

Partaideak: Energia clusterra, Eusko Jaurlaritzak, Idom, Iberdrola, Gamesa eta Tecnalia.



Basque Industry 4.0: espezializazio adimenduna fabrikazio aurreraturako

BEGd-aren %23,95eko ekarpena egiten du industriak, enplegu guztiaren %23 da eta I+G osoaren %41 inbertitzen du Euskadin. Basque Industry 4.0k produktu berriak sortu nahi ditu, material berriak erabili eta prozesuak hobetu adimena, eraginkortasuna, ekoizpena eta jasangarritasuna eskaintzen duten teknologiak erabiltzearen bidez.




Partaideak: Europako Batzordeko DG Connect, CIE Automotive, SPRI Taldea, Ampo, Ibarbia, Tecnalia, IK4-Ideko, Tknika eta Makina-erreminta Fabrikatzaileen Espainiar Elkarte (AFM).



Euskal Herriko Berrikuntzaren X. Gidaren aurkezpena

Argitalpenaren hamargarren edizioak Euskadik azken hamar urteetan izandako eboluzioaren panoramika osoa erakutsi du, berrikuntzan oinarritutako garapen-eredua nola eraiki den erakutsiz.

Partaideak: Eusko Jaurlaritzaren garapen ekonomikoa eta azpiegiturak, Enpresa-estrategia, IK4 Research Alliance, Tecnalia, Biodonostia, Lauaxeta Ikastola, UPV/EHU, Drone by Drone, Deustuko Unibertsitatea, Eroski, Orbea eta Kutxabank.



EUSKALberrikuntzaren sistema ebaluatuz.

Neurtzen ez dena, ezin da hobetu.

Innobasqueren 2016ko Berrikuntza Txostena ZTIPIk Innobasqueri agindutako ebaluazio eta monitorizazio funtzioan sartzen da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren azterketa konparatiboa da lana eta azterketa estatistikoak eta makroekonomikoak konbinatzen ditu pertzepzio-azterketarekin: Basque Innovation Perception (BIP).

Basque Innovation Perception (BIP) 308 profesionalen parte hartzeari esker egin da. Pertsona hauek guztiek aitortutako esperientzia dute I+G+b arloan eta Innobasqueren erakunde bazkideetakoak dira, enpresa, ikerketa, erakunde eta gizarte arlokoak. Talde horrek 10 puntutik 6,26 eman dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren egungo egoerari. Gainera, etorkizunari buruz **nahiko baikorra da**, dela I+G+b inbertsioei dagokionez dela horrek enpresa-lehiakortasunean eta gure gizartearen ongizatean izango duen eraginari dagokionez.

Innobasqueren 2016ko Berrikuntza Txostenak adierazten duenez, Euskadi eskualdeko **berrikuntza-poloa da**. Sailkapen hori eman dio Europako Batzordeak, berrikuntza ertaineko herrialdeetan dauden berrikuntza handiko lau europar eskualdeetako bat delako. Euskadiz gain berrikuntza poloak dira Piemonte eta Friuli-Venecia Julia Italian eta Bratislava Eslovakian.

innobasque txostena berrikuntza2016

Europako Batzordearen arabera, Euskadi berrikuntza gunea da. Krisian berrikuntza handiko eskualdeen taldean mantendu da, bere inguruko lurraldeen eboluzioa negatiboa izan arren.



Europarekiko konbergentzia mantsotu egin da 2013 eta 2014an I+G arloko gastu eta langileetan, baina emaitzek hazten jarraitu dute, batez ere zientifikoek.




Enpresen sustapena funtsezkoa izan da Europarekin bateratzeko prozesu horretan.



Administrazio publikoek enpresen I+G Europako Batasunean baino hein handiagoan finantzatu dute.


BERRIKUNTZA EUROPAN



pertsonaADITUEN pertzepzioa

Basque Innovation Perception (BIP) taldeak 10 puntutik 6,26 eman dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren (ZTBES) egungo egoerari.

BIPen I+G+b arloko 308 adituk parte hartu dute, denak Innobasqueko erakunde bazkideetakoak.



Erakunde arloko kolektiboa	6,05/10
Gizarte arloko kolektiboa	6,13/10
Kolektibo ikertzailea	6,22/10
Enpresa arloko kolektiboa	6,31/10

I+G+brenazioartekotzea sustatzen.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2020 Planak dio Horizonte 2020 europar programatik datorren kanpoko ezagutzaren eta finantzazioaren bilketa hazi behar duela Euskadik, gutxienez 805 milioi euro lortu arte. 2015ean aurreikusitako parte hartze helburuak gainditu ziren, emaitza hauekin:



ETEenPARTE HARTZEA sustatu

ERA-Net delakoak Europar Batasunaren kooperazioko nazioz gairikoko proiektuen finantzazioaren bidez eteen I+G+b sustatzeko tresnak dira. Innobasquek kudeatzen ditu ZTBPN markatutako lehentasuneko eremuen ERA-Net guztiak, hala nola, MANUNET, fabrikazio aurreratuan eta M-Era.Net, materialetan.

ERANet



EUSKAL
ERAKUNDEAK
21
PROIEKTU
AURKEZTU

Jardunaldia
Industrial Technologies for regional growth
BRUSELA

Hitzaldiak
Industrial Technologies 2016
AMSTERDAM

Hitzaldia
Fabrikazio aurreratu eta materialak
DONOSTIA

hedatutako EKIMENAK


WIRE 2016
Week of Innovative Regions in Europe
EINDHOVEN

MEra 2016
Material Aurreratuen Ikerketa Euskal Herrian
BIZKAIA

Hitzaldiak
ERA-LEARN: Annual Joint Programming Conference
BRUSELA

Ekitaldia
KETs Call 2016-2017
MAINZ

TRA 2016
A Decade of Pooled Funds for Transnational Research Collaborations
VARSOVIA



Enterprise Europe Network sareak euskal erakundeak bideratzen, gaitzen, laguntzen eta babesten ditu, batez ere ETE-ak, Europar Batasunean negozio-aukerak izan ditzaten eta I+G+b arloan finantzazioa lortu dezaten. Euskal nodoa eratzen dute Innobasquerekin batera Sprik, BEAZek eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Merkataritza eta Industriako Ganberak.



PROFESIOALEN TREBAKUNTZA

Europako Batzordean proiektu bat aurkeztu eta honek onartzea zaila da eta lehia handia dago. Europatik eskaintzen diren aukerei zukua ateratzeko eta proposamen irabazleak nola aurkeztu jakiteko, Innobasquek urtero **I+G+b arloko nazioarteko proiektuen kudeaketari buruzko ikastaro aurreratua ematen du.**

Bosgarren edizioa 32 profesionalak eman zuten; IK4 Research Alliance, Tecnalia, Spri, Mondragon Unibertsitatea, European Enterprise Network, CDTI eta Innobasqueoak ziren eta 29 espezialista trebatu ziren.



TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA SUSTATU

Teknologiako gardentasuna sustatu eta I+G+b proiektuetarako bazkideak aurkitu fabrikazioaren eta material aurreratuen arloan.

Fabrikazio aurreratua eta materialak nazioarteko hitzaldia antolatu Donostian CEIT-**IK4**, SPRI eta BEAZ Bizkaiarekin batera. Osoko bilkuran hauek hartu zuten parte: Eusko Jaurlaritza, SPRI, Europako Batzordea, CDTI, IK4, Mondragón Corporación, Vision 2020 Network eta Innobasquek.



HORIZONTE 2020: FORO TEKNIKOAK ETA INFORMAZIO-JARDUNALDIAK

Horizonte 2020ri buruzko informazio zehatza, Infodays informazio-jardunaldien bidez:

- **Nazioarteko lankidetzak teknologikoari laguntzeko tresnak** CDTI eta SPRIrekin lankidetzan.
- **I+G+b proiektuen finantzazioa ingurumen sektorean**, IHOBE, Aclima, CDTI eta SPRIrekin lankidetzan.
- **HORIZONTE 2020: Informazio eta Komunikazio Teknologia**, Ikerlan-**IK4**, CDTI, SPRI eta BEAZekin lankidetzan.
- **Nola parte hartu arrakastaz H2020n**, Vicomtech-**IK4**, MINECO, Zabala Consulting, SPRI eta Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan.

Foro teknikoak CDTIrekin elkarlanean:

- **Nanoteknologia, Material aurreratuak, Bioteknologia eta Prozesu eta fabrikazio aurreratuak** (NMBP)
- **Energia** Innobasquen.



Cegasa, Achucarro Basque Center for Neuroscience, LivingLab, Erreka Fastening Solutions, Gaiker, Tecnalia eta Cidetec (2)



Biolan, Nesplora, Fresmak, Farsen, Neos, Arima, Sapa, Deusto Sistemas, Satlantis, Nautilus, Naian Software, Baiwind, Veigalan, GNC, Lumiker, Zuma, Zoovel eta Basoinsa

BERRITZEKO lankidetzan.

innobasque EXCHANGE



EDIZIOAK
9

ERAKUNDE
PARTAIDEAK
300

AURKEZTUTAKO
PROIEKTUAK
78

PERTSONA
PARTAIDEAK
600

Innobasque Exchangek bere metodologia du, xumea baino eraginkorra, eta 4 fase ditu: inspirazioa, ideagintza, hazkundera eta konexioa. Mind mapping, role playing, GOAS eta pitching bezalako tresnen bidez, profesional heterogeneoz eratutako lan taldeek proiektuak sakon aztertzen dituzte, aukera berriak sortu daitezzen.



2016

1 edizioa

8 proiektu

Erakunde bazkideen 50 ordezkari inguru aritu ziren lanean elkarlaneko berrikuntzaren jardunaldi honetan, elkarlanean aritzeko erronka dela eta ETEek eta mikroeteez dituzten beharrei erantzuna eman nahian. Oraingoan 8 proiektu aurkeztu ziren hazten jarraitzeko lankidetzara bila: **Euritanta, GIK, Ludus, Museo Marítimo Ría de Bilbao, Segiro, Slideboat, Udaltoki eta WimpyKids.**





Gosasun

Bizi-ohitura osasuntsuak hartzeko mugimendua.

Talde sustatzaileen 15 erakunde bazkietako pertsonak daude: Irungo Udala, Getxo Kirolak, Euskalit, BC3, Eroski Fundazioa, Metro Bilbao, Solutia, Ulma, IMQ Prevención, Prevencilan, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Portuko Agintaritza, Elikaduraren clusterra, Nire iHealth, Ayla Searching.

“Euskadi lurralde osasuntsua: Gosasun sarearekin partekatutako proiektua” jardunaldia Donostian Gosasun memoria aurkezteko.



Lekandene

Berrikuntza irekia esperimentatzeko

Global Shapers Bilbao: gazte lider globalak, Davoseko World Economic Forumaren inguruan sortuak, aldaketa ezarzen dute beren inguruan eta zeregin aktiboa dute genda globalean, eskualdekoan eta tokikoan. Sustatzaileak: IkasHub, Improve Change, Deustotech, Ferruelo eta Velasco e Innobasque.

Nodriza: Berrikuntza express eta sustatzaile haiek ditu Innobasquerekin batera, FP Somorrostro, Innovup, C2B, Blanca Alarcia, Grupo Urbegi, eta Ecutem.

TestINN Red eta InnovAcción: lan-dinamikak erakunde bazkideek beren negozio zerbitzua edota produktua aztertu, kontrastatu eta esperimentatu dezaten merkatura behin betirako atera aurretik. Bi saio Forinter eta Noismart.



Be Sarea

Lankidetzako proiektua Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bizkaiko Industria-enprezetan elkarlanean berritzeko proiektuak sustatzeko.

Lan-taldean daude:

Bizkaiko Foru Aldundia, FVEM (Metaleko Enpresen Bizkaiko Federazioa), Hegan (CAEko sektore aeronautikoaren eta espazialaren clusterra), Eraikune (Eraikuntza sektoreko clusterra), ESLE (Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkartea), Azaro Fundazioa, Durangaldeko Lehiakortasun Poloa, Beaz eta Innobasque.



Ágora foroa

Arabako Foru Aldundiak sustatutako 200 gizarte eragile, eragile ekonomiko eta kultural dira eztabaida eta lankidetzarako foro honetako kide eta lurraldea berreskuratzea da beren xedea. Innobasque lankidetzan dabil:

- Arabako lurralderako gizarte-berrikuntza estrategia ezartzeko honakoen bidez: gizarte-berrikuntzako eragile eta proiektuen mapeoa.
- Campus teknologiko bat antolatu du UPV/EHU eta Egibiderek batera.
- Bokazio teknologikoak sustatzeko talde batean parte hartzen du.
- “Industria 4.0” lan-taldean parte hartzen du.

kulturaBERRITZAILEA sustatzen.

Innobasqueko erakundearen sareak pertsona guztien esku jartzen du berrikuntza...

- gizarte-hazkunderaren eta ongizatearen motorra delako.
- Euskadiko balio berritzailea hedatu beharra dagoelako.
- ahalegina berrikuntzan kontzentratzea garrantzitsua delako.
- berrikuntza sustatu behar delako.
- Pertsonak, talentua, ezagutza, sormena eta lankidetzak faktore kritikoak dira berrikuntzarentzat.



TXOKOAK

Produktu eta zerbitzu berritzaileen berri izateko eta antolakuntza-eredu desberdinak ezagutzeko.

TAILERRAK

Berrikuntza, azkenengo metodologiak, teknikak eta tresnak esperimintatzeko.

HITZALDIAK ETA EZTABAIDAK

Nazioarteko berrikuntza kasurik hoberenei buruzko elkarrizketetan parte hartu eta bere eraginaz jakin.

euskalBERRIKUNTZA agenda publikoan



Global Innovation day

Euskal berrikuntzaren hitzordu handia

2.000
bertaratu

106
erakunde
berritzaile



TAILERRAK	BERRIKUNTZA CAMPUSAK	TXOKOAK
27	1	57

Global Innovation Day topaketa irekia, dinamikoa eta parte hartzailea da, eta Innobasqui sareak ezagutza espezializatua partekatzen du bertan, networking bidezko loturak eragiten ditu eta etorkizuna markatuko duten berrikuntza globaleko joerak gerturatzeko.

BATZORDE ANTOLATZAILEA



ERAKUNDE LANKIDEAK


Aernova | Begoñazpi Ikastola | Diócesis de Bilbao | Euskotren
IK4 Research Alliance | ikasHUB | Lantegi Batuak
Mondragón Unibertsitatea | Protón Electrónica | Suuma | Tecnalia

MEDIA PARTNERS

Estrategia empresarial | Innovation Today | Interempresas

saioak **10** hizlariak **22** bertaratuak **374**

Jardunaldi hauetan Innobasque sareak bere ezagutza espezializatua partekatzen du. Mila erakunde bazkide baino gehiagoren artean berrikuntza arloko hainbat aditu eta espezialista daude eta oso menderatzen dituzten diziplinetan beste bazkideei laguntzeko aukera dute hilean behin konfiantzako eta lankidetzako giroan.



1



Gaur intereseko taldeak kudeatzeko erronka estrategikoak Atreviarekin.



2



Patenteen lege berriaren zirrikituak, Galbaian eta Backer&McKenzierekin.



3



Nola finantzatu I+G+b, Eqa eta Dresser-Rand Guascorekin.



4




Kompetentzia emozional, komunikazional eta digitalen bidez kudeatu Nexian eta Deustuko Unibertsitatearekin.



5



Uztartze-neurrien eragina erakundeetan, Adimen Investigación, Grupo Análisis e Investigación eta Euskaltelekin.



6



eIDASeko erakundeen eta pertsonen eraldaketa digitalerako aukera, Metaposta eta Petronorrek.



7



Zer eragin du zibersegurtasunak enpresetan, Emetel, Barrilero y Asociados, Eje eta Euskaltelekin.



8



Berritu berrikuntza lurreratuz, TZBZ eta Make it visualekin.



9



ETEa hodeitik kudeatzeko abantailak eta tresnak, Apli-Media eta Dis-processekin.



10



Compliance: enpresen eta beren zuzendaritza-taldeen zigor-erantzukizuna, Baileman & Partnersekin.

gizarteERRONKAK sartuz.

Innobasque organismo eta erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen da partekatutako balio publikoa sortuko duten mekanismoak sustatzeko, lurraldearen (pertsonek, erkidegoak eta erakundeak) potentzial politiko, ekonomiko eta soziala sustatuz berrikuntzan oinarritutako garapen-estrategia alternatiboa diseinatzeko.

GGKE JARDUNALDIA

Enpresen eta GGKEen arteko lankidetzaren Euskadin

85 lagun izan ziren enpresen eta aukerak sortzen dituzten GGKEen arteko itunak eraikitze jardunaldian, gizarte-erantzukizun korporatiboa eta negozio-estrategia modu jasangarrian lerrotatuz.

Hauen lankidetzarekin: **Ayuda en Acción, Unicef, Munduko Medikuek, Mundukide, Vicente Ferrer** eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Agentzia.



INTEGRA SAREA

Euskadin osasun-sistemako antolakuntza eta laguntza arloko integrazioa bizkortzeko lankidetzaren sarea

Sistema horren erronkak aztertu ditu, hala nola, pertsona ardatz duen arreta, kudeaketa-sistema eta gobernantza, paziente kronikoan integratutako arreta, erkidegotik heltzea edo koordinazio sozio-sanitarioa.

Batzorde teknikoan daude **Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak, Kronikagune, BIOEF** eta Innobasque.



demokraziaren eta HERRITARREN parte hartzearen LIBURU zuria

Demokrazia aurreratua lortzeko xedez, gizarte zibila sartuz politika publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan; Eusko Jaurlaritzaren lankidetzan izan da Liburu honen hedapenean. Bertan dagoen gobernantza ereduaren Exekutiboak hitza ematen du prozesu parte hartzaileak sustatuko dituela eta ekintza publikoa eraldatzeko tresnak ere bai.

Bidaia-gida. Parte hartzea: 100 Esplorazio, hurbilketa eta ibilbiderako orientabideak

Gidaren xedea da edozein administrazio publikok abian jarri nahi duen parte-hartze prozesu oro hasi, garatu eta ebaluatzeko giltzarriak biltzea.



Lankideak:


Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saila, Innobasque eta Coach&Play.

Gardentasunean ontziratuko gara. Eskufaiaren eskuliburua

Herritarrek botere publikoen jardueraren berri izateko eskubidea dute, horien jardura aztertu eta erantzukizunak eskatzeko, eskubide horri lotuta dago gardentasuna, baina herritarrek gai publikoetan egiazko parte hartzea izateko bitarteko juridikoa eta teknikoa ere bada.

Lankideak:

Departamento de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco, Innobasque y Coach&Play.



Parte-hartzeko prozesua ebaluatzeko eredu

Parte-hartzeko prozesuak ebaluatzeko eredu Eusko Jaurlaritzan garatutako parte hartzeko 7 esperientziaren arduradunekin lankidetzan egin da, eta prozesu hauei buruz duten ezagutza praktikoa eskaini dute eta garapenean lagundu ere bai.

Lankideak:

Eusko Jaurlaritzako sail hauek: Herri Administrazioa eta Justizia, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, Enplegua eta Gizarte-politikak, Ingurumena eta Lurralde-politika eta Osasun Saila; Osakidetza; Emakunde; CIDEK eta Innobasque.



II Elkarlan Sariak 2016

Elkarlan Sariak 2016 deialdia babestu, herritarren parte hartzeko proiektu berritzaileak sustatzeko, osasun, ikaskuntza, ingurumen, garapen ekonomiko eta gizarte kohesio arloetan gizarte eraldaketa nahi duten ahalduzko prozesuak sortzen badituzte.



Portugaletako Alde Zaharreko Larrentzeko auzo-elkartearena, hornidura-azokako instalazioak berpizteko asmoz sortua.



Reas Euskadi-Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarea Elkarrekin sustatua, praktika ekonomiko alternatiboak sustatu nahi ditu.



Subiranotasun energetikoa berreskuratzeko proiektu kooperatiboa, eredu energetiko berriaren alde egiten duen ekimena.

ENPLEGUA

Industria-sektorearen oraina eta etorkizuna Ezkerraldean

"Industria-sektorearen oraina eta etorkizuna Ezkerraldean" txostena egin, ezkerraldeko industria-enpleguaren diagnostikoa.

Hauen lankidetzarekin: **DEMA-Enpresa Garapena, Bizkaiko Foru Aldundia, Prestik 2016 enplegu-azoka eta eskualdeko eragileak eta enpresak.**



RRI TOOLS

Ikerketa eta berrikuntza erantzuleari buruzko jardunaldia eta tailerrak

RRI Tools (www.rri-tools.eu) europar toolkitaren aurkezpena; 350 baliabide multimedia baino gehiago ditu RRI (Ikerketa eta Berrikuntza arduratsua, ingeleseko siglak) ezartzeko.

Hauekin lankidetzan: **La Caixa Fundazioa** buru duen RRI Toolsen Hub-a.



ELKARLANEKO ZUZENBIDEA

Elkarlaneko zuzenbidea sustatu Euskadin

Elkarlaneko zuzenbidea sustatu, hedatu eta ezarri Euskadin, enpresen eta Administrazioaren arloan gatazkak konpontzeko modu berritzaile gisa; hainbat tailerretan parte hartu da, Gasteizen biltzar bat egin da eta 3 bideo ere bai design thinking bidez.

Honekin lankidetzan: **Euskal Herriko Elkarlan Zuzenbidearen Elkarte.**



"Umherri16: hiria eta haurrak" jardunaldia izan zen azaroan Bilbon eta haurren ikuspegia hirien diseinuan sartzeaz aritu ziren, ikuspegi politikoetik, erkidegoarenetik eta hirigintzako ikuspegitik. 400 lagunek hartu zuten parte, eta horietatik 84 haurrak izan ziren.

Haurren Hirien Sareak antolatu zuen Jardunaldia; sare honetan 12 euskal udalerrri daude eta Innobasquek sustatu du **Herrilaborategiarekin** lankidetzan.



Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren lankidetzan izan zen eta bere egoitzan izan zen Jardunaldiko egunetako bat.

Herrilaborategia eragileen partzuego bat da eta erkidegoko kultura sustatzen du hazkunde kolektiboari eta pertsonen garapen pertsonalari lotuta udalerrri mailan, maila profesionallean eta herritar mailan. **Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila, UPV/EHU, Leioako Berritzegune, Leioako Udala, Solasgune** eta **Innobasque** daude bertan.



BIZKAIA**lurralde**IREKIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren gobernu irekiaren ekintza-planaren eraikuntzan lankidetzan.

innobasqueGARA.

